

**Euskal gramatikagintza zaharraren historia
laburra:XVII-XVIII. mendeak**

Ricardo Gómez

► **To cite this version:**

Ricardo Gómez. Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra:XVII-XVIII. mendeak. X. Artigoitia & J. A. Lakarra. Gramatika Jaietan. Patxi Goenagaren omenez, UPV/EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia, pp.329-349, 2008, ASJUren gehigarriak, 51. artxibo-00325013

HAL Id: artxibo-00325013

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00325013>

Submitted on 25 Sep 2008

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak

Ricardo Gómez

UPV/EHU eta "Julio Urkixo" Euskal Filologi Mintegia

0. Sarrera¹

Euskal gramatikagintzak ez du corpus zabalegirik, inguruko tradizio handienekin (espainola, frantsesa, ingelesa, etab.) konparatuz gero behinik behin. Baina Europako esparruan ez da inondik ere makalenetakoa, ezta berrienetakoa ere; kontuan har bedi hizkuntza askok ez zutela gramatika idatzirik izan XIX. mendea iritsi arte (norvegiera eta bulgariera, kasu).² Nolanahi ere den, Europako hainbat hizkuntzaren lehen gramatika-lanak Berpizkunde garaian idatzi ziren, euskararekin bateratsu. Izan ere, Berpizkudean Aurouxek (1994) "bigarren iraultza tekniko-linguistikoa" deitu duena abiatu zen: alegia, munduko hizkuntzen gramatizazio masiboa.³ Aurreko garaietan hizkuntza arrunten gramatikak idaztea oso noizbehinka gertatzen zen: Goi Erdi Aroan Irlanda eta Islandiako adibide bakanak ditugu, eta XIII. mendean galesa eta proventzala. Aldiz, XV. mendetik aurrera, bai Europako hizkuntza nagusiak izan nahi zutenak (italiera, gaztelania, frantsesa, portugesa, alemana, ingelesa), bai hizkuntza "apalagoak" (hungariera, poloniera, euskara bera) eta baita lurralde berrietako hizkuntzak ere (nahuatla, kitxua, guarania...) gramatika eta hiztegien bitartez deskribatu eta arautu ziren, XIX. mendea arte luzatuko zen prozesu batean.

Zergatik sortu zen Europan halako prozesua? Lehenik eta behin, hizkuntza erromantzeen sorrera aipatu behar da (VII-X. mendeetan). Goi Erdi Aroan latina da oraingoz administrazioan, kulturen eta erlijioan erabiltzen den hizkuntza, baita hizkuntza erromantzeen eremutik kanpo ere (germaniarrak, zeltikoak, etab.), baina latina gero eta urrunago dago europarren ama-hizkuntzetatik. Gainera, IX. mendetik aurrera latindar kultura berreskuratzeko

¹ Artikulu hau nire doktorego tesiaren (Gómez 2007) zati batean oinarritzen da, hemen argitaratzeko emendatu eta zuzenduta. Bestalde, lan hau Joseba A. Lakarrak zuzendutako "Fundamentos para unos *Monumenta linguae vasconum*: historia, crítica y edición de textos vascos (II)" (HUM2005-08047) ikerketa proiektuaren barruan sartzen da. Gidor Bilbaok eta Blanca Urgellek zirriborroa irakurri zuten eta beren oharrez zuzendu eta biziki aberastu zuten; bihoakie nire esker ona.

² Europako gramatikagintza tradizioen agerpenaz, ik. Auroux-ek (1992: 74-75) dakarren taula.

³ Lehenbiziko iraultza tekniko-linguistikoa, Aurouxen ustez, idazketaren asmakuntza (K.a. 3000) izan zen.

ahaleginak hasten dira. Egoera horretan, europar batentzat, latina ikasi egin behar zuen hizkuntza zen, bigarren hizkuntza bat. Latinaren gramatikak baziren, batez ere Donato eta Priszianoren arteetan oinarrituak.⁴ Eta latina ikastearekin batera, gramatika apurka-apurka hizkuntza —edozein hizkuntza— ikasteko lanabes bihurtu zen, baita ama-hizkuntza bera ere. Beste alde batetik, IX. mendetik aurrera Europako hizkuntza nagusiak idatziz jasotzen hasi ziren; harrezkero hizkuntza arruntetan idatzitako literatur tradizioak pixkanaka sortuko ziren. Eta, azkenik, garai hartan latinaren gramatika tresna pedagogiko guztiz garatua zen.

Orduan, zergatik itxaron behar da XVI. mendea arte hizkuntza arruntan gramatikak orokortzeko? Bada, orduantxe sortu zelako interesa edo beharra. Bi arrazoi nagusi aipa daitezke hizkuntza baten gramatika egiteko beharra sor dadin: hizkuntza arrotz bat ikasi behar izatea eta hizkuntz politika.

Hizkuntza arrotz bat ikasteko interes praktiko batzuk biltzen dira, hala nola (1) administrazioaren hizkuntza ezagutzea; (2) testu sakratuen corpora ezagutzea; (3) kultur hizkuntza bat ezagutzea; (4) merkatu eta politika erlazioak; (5) bidaiak, esplorazioak eta espedizio militarrik; (6) erlijio ideien inportazioa edo esportazioa, eta (7) kolonizazioak.

Halaber, hizkuntz politika funtsean bi interesetan biltzen da: (1) literatur hizkuntza bat arautzea eta antolatzea eta (2) hizkuntzaren zabalkunderako politika garatzea, bai barnean, bai kanpoan erabiltzeko.

Interes hauetako batzuk latinarekin (edo are greko eta hebreerarekin) lot daitezke eta zenbaitetan Erdi Aroan indarrean zeuden. Hala ere, Berpizkundean latinak jarduera intelektual guztietan (literaturan, zientzian, administrazioan, etab.) zuen lekua hizkuntza arruntei egokitzeko mugimendua gertatu zen, nazio modernoek sorrerarekin lotua eta “nazio bat, hizkuntza bat” leloa gauzatzeko asmoz. Izan ere, hizkuntza gehienek gramatizazioa helburu politikoekin lotzen da: nazio berrien justifikazioa, boterearen zentralizazioa eta lurralde-eskubideen aldarrikapena. Nazioaren hizkuntza gramatika-erregelen moldeetan sartu nahi zen — kodetu nahi zen—, administrazioan eta politikan erabiltzeko tresna egokia izan zedin. Kontuan har bedi Europako hizkuntza asko mende batzuk lehenago hasi zirela literaturan eta administrazioan erabiltzen, esan bezala. Hala ere, botere politiko zentralista berria ezin zen erraz bat egin nobleen eta elizgizonen gizarte feudalean erabiltzen zen latinarekin, Erdi Aroko latinarekin alegia. Latinaren nagusitasuna, neurri handi batean, Elizak gizartean zuen leku gailenagatik gertatzen zen.

⁴ Erdi Aroko latin gramatikari buruz, ik. esaterako Law (1997).

Horrela, XVI-XVII. mendeetan —estatuei mailegatutako dirutzari esker— merkatari-burgesiak noblezia eta Eliza gainditu zituen gizarte eta politika hierarkian; beraz, hizkuntzen erabilera eta irakaskuntza berrantolatu ahal izan zituen: pixkanaka latina baztertu zen, hizkuntza arrunten alde. Orobat, humanistek Erdi Aroko latina kritikatu zuten.

Bukatzeko, gramatizazio prozesuaren beste bi eragile aipa daitezke: (1) hizkuntzen arautze ortografiko eta morfologikoa areagotu zuen inprimategiaren erabilera eta (2) Erreforma protestanteak jatorrizko testu erlijiosoak ezagutzeari emandako garrantzia.

Honen guztiaren ondorioz, hizkuntza arruntak prest zeuden administrazio, literatura eta zientzia zereginetan erabil zitezten.

Hurrengo lerroetan euskal gramatikagintza zaharraren historia zirriborratuko dut, XVI. mendeko hastapenetatik XVIII. mendera iritsi arte.⁵

1. Voltaire

Euskara aintzat hartzen duen lehen gramatika-lan ezaguna Voltaire-ren *L'Interpret ou Traduction du françois espagnol & basque* hizkuntz eskuliburuan dugu (ca. 1620).⁶ Liburu hau Berpizkundeko hizkuntz eskuliburuaren tradizioan sartzen da bete-betean eta, beraz, halako lan didaktikoetan ohikoak ziren hiru atalak ditu: gramatika, hiztegia eta elkarrizketak.⁷ Voltaireren lanaren lehen edizioa Lyonen argitaratu zen eta haren ale bakarra Bordeleko Udal Liburutegian gordetzen da. Hogei bat urte geroago bi aldiz berrargitaratu zen, izenburua aldaturik eta egilearen izenik gabe: *Tresora hirour languaietaqua, francesa, espagnola, eta hasquara. Obra ona eta necessaria nore desiracen baytou eranden lengue horençat eta Thresor des trois langues, françoise, espagnolle, et basque, oeuvre ters utile & necessaire pour ceux qui desirent auoir l'intelligence de susdites Langues* (Baiona, 1642). Berrargitalpen gehiago izan ziren XVII eta XVIII. mendeetan, baina hauetan Voltaireren lana arras moztuta agertu zen, ia elkarrizketak bakarrik —eta ez denak beti— agertzen zirelako.⁸

⁵ Euskal gramatika-lan zaharrei buruz, ik. bereziki Oyharçabal (1989). Autore honek, Larramendiren gramatika mugarr hartuta, hiru ikuspegi bereizten ditu euskara aztertu zuten lehen lanetan: ikuspegi historiko edota apologetikoa zutenak (Oihenart bereziki), ikuspegi didaktikoa zutenak (Voltaire eta Mikoleta) eta ikuspegi deskribatzailea zutenak (Urte, nahiz helburu didaktikoa ere sumatzen dion, eta beharbada galdurik dauden Pouvreau, Bidegarai eta Oianguren lanak). Artikulu honetan Oyharçabalen lan bikainarekin dudak zorra aitortu behar dut.

⁶ Alde batera uzten ditut Garibairen gramatikazko ohar bakanak; ik. Zubiaur (1989).

⁷ Hizkuntz eskuliburuaren tradizioaz eta haren euskal ordezkariak, ik. Lakarra (1994a: 8-14).

⁸ Edizioen historiaz eta bakoitzaren ezaugarriez, ik. Vinson (1891-1898: 55-63 eta 536-537) eta Sáez Rivera (2007: 258-260, 1348-1350, 1459-1465).

Lehen edizio moderno osoa Lakarrak ondu zuen (1997, 1999), gehienbat Voltoireren interes lexikografikoak eta euskararen historiarekikoak hartaraturik. Hala ere, haren hitzaurrean Voltoireren gramatikaren (“Spece de grammaire”) laburpena eskaintzen digu (Lakarra 1997: 11-12). Lakarrak dioenez, gramatika erabat lexikoa da; berrogei orrialdetan, eta frantsesetik abiatuak, Voltoirek zenbait kategoria eta azpikategoriaren hitz zerrendak besterik ez du ematen: lehenik, adberbio, preposizio eta juntagailuak (1620: 1-11), gero izenordainak (11-13. or.) eta, horien ondoren, aditz denborak eta moduak (13-40. or.); azkenean, singular eta pluralaren adibideak ematen ditu, denak absolutiboan.⁹ Hortaz, Voltoirek ez du deklinabideaz deus esaten, ez bada zeharka eta inolako loturarik gabe, frantsesezko preposizio eta izenordainen itzulpenek euskarazko deklinabide atzizkiak agertzea eskatzen duten neurrian.

Berriki, Sáez Riverak (2006: 447) Voltoireren lanean agertzen diren elkarrizketen iturria aurkitu du. Gabriel Meurier flandestarraren *Coloquios familiares muy conuenientes y mas prouechosos de quantos salieron fasta agora para qualquier qualidad de personas desseosas de saber hablar y escribir Español y Frances* (Amberes, 1568) izan zen. Orobat, bere doktorego tesian Sáez Riverak (2007: 259, 1244) baieztatu du *Tresoraren* 1684ko edizioan agertzen diren bi ipuinak (“Cuento gracioso, y verdadero de una Trucha” eta “Otro de un enamorado, ô Pisaverde”) Julliani-ren *La nomenclature et les dialogues familiars, [...] premiere partie. [...] Les proverbes divertissans et les heures de recreation [...] Seconde partie* (Paris, 1668) lanetik kopiatuta daudela, aldaketak oso txikiak baitira. Nolanahi ere den, euskalaritzaren historiari dagokionez, Sáez Riveraren doktorego tesiaren ekarpen nagusia Voltoireren eskuliburua garai hartako Europako hizkuntz irakaskuntzaren testuinguruan kokatzea da.

2. Oihenart

Askoz garrantzitsuagoak ditugu Arnaud Oihenartek *Notitia utriusque Vasconiae* historia-liburuan euskal gramatika aurkezteko idatzi zituen kapituluak, lehen liburuko XI.a eta bereziki XIV.a. *Notitia* lehenik 1638an argitaratu zen eta bigarrenik, gehiketa eta zuzenketa garrantzitsuak sartu ondoren, 1656an.¹⁰ Liburua gaztelaniara itzuli zen *RIEV* aldizkarian

⁹ Jakina, izenen, adjektiboen eta aditzen adibideak —baina ez soilik kategoria hauetakoak— gramatikaren ondoren datorren hiztegi alfabetikoan sartzen ditu.

¹⁰ Vinsonek *Notitiaren* argitalpen bakoitzeko aleak erkatu zituen eta diferentziak zerrendatu (1891-1898: 80-82). Hizpide dugun zatiari dagokionez, Vinsonek adierazten du bigarren argitalpeneko XIV. kapituluari plegu bat (zortzi orrialde) gehitu zitzaiola, orrialde berriak zenbatu gabe eta, hortaz, zenbakuntza aldatu gabe; halaber,

(1926-1928) eta, latinezko testuaren faksimilearekin batera, 1992an berrargitaratu zen.¹¹ Historialaria izanagatik, euskal gramatikagintza zaharrean Oihenartek leku berezia merezi du, zalantza izpirik gabe; Oihenart da lehen euskal gramatikarietarik analisi zorrotz eta originalenak eskaini zizkiguna, ondoko euskalariengan eragin ñimiñoa izan bazuten ere. Euskal gramatikari eskainitako kapitulu labur eta mamitsuetan Europako Mendebaldean eredu nagusia zen gramatika greko-latindarraren mendekotasuna nabarmena da. Hala eta guztiz ere, aldian behin Oihenart gauza da eredu klasikoa gainditzeko eta euskararen deskribapen beregaina eta egokiagoa burutzeko.

Aipagarri da Oihenarten ideien artean gaur egun erabateko balioa duten hainbat ere aurki daitezkeela; ekarpen hauek, dena den, denbora luzea beharko zuten euskalaritzaren barruan arrakasta eta onarpena lortzeko —batzuetan Oihenarten aitzindaritasuna ezezagun edo isilpean gertatu zelarik ere— eta, ikusiko dugunez, baten bat eztabaidagai zen oraindik XIX. mendearen hondarrean. Hona ekarpen horietariko batzuk:

XI. kapituluaren gaia *-a* eta *-ak* singularreko eta pluraleko artikulua direla erakustea da (xehetasun gehiagotarako, ik. Gómez 2001). Aldiz, garaiko iritzi nagusiaren arabera (Marineo Siculo, Merula, Garibai; geroago Pouvreau, Urte, Harriet eta Etxeberri Sarakoa), izenkien bukaerak edo nominatiboaren atzizkiak ziren. Hala ere, uste hau ez zen euskalaritzatik zeharo baztertuko Larramendik (1729) zorrozki kritikatu zuen arte.

XIV. kapituluaren hasieran, Oihenartek euskal deklinabide mota bi bereizi zituen, artikuluduna eta artikulugabea, egun *mugatu* eta *mugagabe* deituz ezagutzen ditugunak, hain zuzen; lehenbizikoa singularra edo plurala izan daitekeela ere adierazi zuen. Mugagabea, alabaina, ez zen berriz euskal gramatikagintzan azalduko Astarloaren eta Humboldt lanak iritsi arte. Geroxeago Darrigolek (1827) baieztatu zuen bera izan zela mugagabeaz ohartu zen lehena, eta uste oker horrek gutxienez Villasanteren *Historia de la literatura vasca*-raino iraun zuen, Mitxelenak (1973 [1985: 134]) salatu bezala.

Deklinabidearen arloan jarraituz, euskararen kasuen artean latinaren paradigmatik kanpo geratzen diren kasu ergatiboa (*casus agendi* edo *activus*) eta partitiboa (*casus negandi seu dubitandi*) identifikatu zituen eta euskarak akusatibo eta bokatiBORIK ez duela adierazi zuen.

kapitulu guztiz eraberritu zela. Baina ez du kapituluaren edukian gertatutako aldaketek deus zehazten; xehetasunak hurrengo lan baterako utziz, funtsean bigarren argitalpenak izenordainei, deklinaezinei eta silaben kantitateari buruzko atalak (“De Pronomine”, “De Indeclinabilibus” eta “De syllabarum quantitate”, hurrenez hurren) erantsi ditu eta aditzari buruzko informazioa askoz luzeagoa da, eta desberdin antolatua.

¹¹ Hala eta guztiz ere, Gorosterratzuren itzulpenak huts eta hutsune franko ditu. Horregatik, eta euskal gramatikagintzaren historian duen garrantziagatik, Oihenarten testuak edizio berri bat merezi luke.

Berriz ere, euskal kasu-sistemaren ezaugarri hauek Astarloaren eta Humboldtaren lanen zain geratu beharko dute ezagutza eta onarpen zabala izan dezaten. Oyharçabalek (1993) ohartarazi zuen bezala, Oihenartek deklinabide paradigmak eratzean ikuspegi morfologiko formala baliatu zuen. Alta, batetik, artikuludun/artikulugabe aurkaritzan sartzen diren atzizkiak bakarrik onartzen ditu, halakotzat jotzen ez dituen leku-denborazkoak kanpoan utziz (postposiziotzat jo zituen, hain zuzen ere); beste alde batetik, kasu eta atzizkien arteko banabanako egokitasuna ezartzen du, aipatu bi kasu berezien identifikatzea ahalbidetuz, edo erraztuz bederen.¹²

Aditzaren azterketari dagokionez, euskararen berezko aditz-jokoa trinkoa dela (*coniugatio propria*), eta ez perifrastikoa (*coniugatio impropria*), proposatu zuen (Oihenart 1656: 63). Ondoko gramatikariek, Larramendi buruzagi, perifrastikoaren jatortasuna eta antzintasuna aldarrikatu zuten eta Oihenarten iritzia ez zen XIX. mende hondarra arte berragertuko, garaile berragertzeko bada ere; jarrera bakoitzaren aldekoen zerrenda ez oso baterako, ik. Gómez (1989: 361). Laguntzaileen sistema aski ongi eman zuen Oihenartek, lau laguntzaile aipatu baitzituen —*nais*, *dud*, *adi* eta *esac*—¹³ eta modu eta denboren arteko euren banaketa egoki bereizi (Oihenart 1656: 69). Van Eysen proposamenak iritsi arte, ez zen lauko eskema hau berragertuko (ik. Gómez 2002).

3. Pouvreau

Silvain Pouvreaux gramatika ohar batzuk utzi zituen bere eskuizkribuetan eta egun Parisko Liburutegi Nazionaleko Fond Basque-Celte-ren 8. eskuizkribuan daude, 1-3. orrietan zehazki. Oharrok Vinsonek argitaratu zituen bi aldiz (Vinson 1881, 1892). Pentsatu izan da testu hau Pouvreaux prestatu nahi zuen gramatika-lan baten zatiak edo zirriborroak direla (Oyharçabal 1989: 63) eta hala ematen dute aditzera Pouvreaux idazten dituen kapitulu eta atal izenburuek; ez dakigu, halere, gramatika-lan hura inoiz burutu zuen.

Pouvreauxen gramatika ideiak ez dira oso originalak: ez du *-a* artikulutzat hartzen, nominatibo singularizat baizik; latinaren komunztadura-ereduari jarraituz, uste du izenak kasua galtzen duela adjektiboarekin edo beste hitz batzuekin (*bat*, *batzuk*, erakusleak) azaltzen denean, salbuespen gisa guretzat berezko *-a* duten hitzak aipatzen dituela (*aita*, *ama*,

¹² Izan ere, partitiboa paradigma artikulugabeen bakarrik sartzen da, sei kasu dituen bakarrean. Singularrak eta pluralak, aldiz, bosna kasu dituzte.

¹³ Zehazkiago, Oihenartek dioenez, lehenengo biak aditzak ere badira (*nais* eta *dud*) eta beste biak aurrekoen laguntzaileak (*adi* eta *ezak*, hurrenez hurren).

alaba...); jatorrizko adjektiboak eta adjektibo eratorriak bereizten ditu, bigarrenak *-zko*, *-ko(a)* eta *-ren(a)* atzizkiak dituenak izanik; bi nominatibo bereizten ditu, aditz substantibo edo pasiboekin erabiltzen dena (*-a*) eta aditz aktiboekin erabiltzen dena (*-ac*); paradigma mugagabeko atzizki bereziez ohartu zen, baina ez zen konturatu mugagabearen izaeraz. Nabarmentzekoa da gramatika zati hauetan Pouvreauk bere hiztegia aipatzen duela: “Cette petite particule vsurpee par syncope ou abbreuiation du mot d’Ecina que vous verrez dans mon dictionnaire sert pour expliquer le défaut du verbe non possum, je ne puis” (ik. Vinson 1892: 7-8).¹⁴

4. Mikoleta

Rafael Mikoleta bilbotarrak *Modo breue de aprender la lengua Vizcayna* idatzi zuen 1653an. Eskuizkribua Londresko British Museum-en dago eta XIX. mende amaieran argitaratu zen estreinakoz (Sampere y Miquel 1880, Dodgson 1897). XX. mendean Zelaietak osorik argitaratu zuen bitan (1988, 1995) eta Mikoletaren lanaren zati batzuek —baina inoiz ez gramatikak— zenbait edizio izan dituzte (Mitxelena 1964: 132-135, Sarasola 1983: 188-208). Mikoletaren gramatika oso laburra da eta ez dago garbi argitaratzeko asmorik izan zuen ala, enkarguz, pertsona bati euskara ikasten laguntzeko ondu zuen (cf. Zelaieta 1995: 6-7).

Mikoletaren gramatikan hiru atal bereiz daitezke. Lana hasten da “Modo breve de sauer declinar los nombres vascongados” atalarekin. Bertan, Mikoletak adierazten du euskal izenek eta adjektiboek *-a* eta *-ac* amaiera dutela, izen bereziek izan ezik; izenak, adjektiboarekin agertzean, bukaera galtzen du. *Xaun* izenaren deklinabidea aurkezten du, singularrean eta pluralean; jakina, mugagabeaz ez du deus esaten. Mikoletaren paradigmetan, latinaren sei kasuak agertzen dira. Haren azterketa latinari oso atxikia agertzen zaigu, kasuen funtzioak aintzat hartzen baititu (nahiz eta Larramendiren mailara heldu gabe; ik. beheago): hala, Mikoletak datiboaren azpian egungo destinatiboa ere sartzen du eta ablatiboaren azpian, inesiboa eta soziatiboa; genitiboari artikulua gehitzen dio (sing. *Xaunená* ‘del Señor’, pl. *Xaunenác* ‘de los Señores’); alabaina ergatiboaren atzizkiak ez ditu ematen.

Mikoletaren gramatikaren bigarren zatia “Conjugacion de los Verbos Vascongados” izenburuarekin hasten da. Lehenbizi, *eguin* aditzaren jokoa aurkezten du eta ohartarazten du aditz ez-ergatibo batzuekin ere (*neutros* deitzen die Mikoletak) erabiltzen dela, hala nola, *loo*

¹⁴ Vinsonnek hauxe eranstean du oin-ohar batean: “Au lieu de ‘mon dictionnaire’ le ms. portait d’abord ‘le dictionnaire que je vous fournis’” (1892: 7).

‘dormir’ eta *ossa* ‘haze frio’. *Ysan* aditzaren jokia eskaintzen du. Atal honen amaieran, Mikoletak adierazten du joko guztien berri ematea ezinezkoa dela eta erabilerak irakasten duela.

Hirugarren atala “Otras reglitas sueltas” izenburuaren ondoren dator. Besteak beste, konparatiboez eta zenbait postposizioen erabileraz (*ra*, *íc* edo *ganíc*) dihardu. Amaieran, *egon*-en bidez eraturako pasiboak eta *egon* aditzaren orainaldiko eta lehenaldiko paradigmak agerrarazten ditu.

5. Bela

Jakes Bela politikari eta legegizon zuberotarrak euskal gramatika bat eta hiztegi bat idatzi zituen, egun galdurik daudenak. Esan izan da lan hauek *Tablettes* entziklopedia moduko lan mardulean —plegu-laurdeneko 6 liburuki— eta oraingoz argitaragabea zeudela, antza denez falta den liburukian, hain zuzen ere (Peillen 1988: 98).¹⁵ Halarik ere, Clément-Simonek (1894-1895: 219-220) emandako datuen arabera, badirudi *Dictionnaire basque* eta *Compendium de grammaire basque* lanak *Tablettes*-etatik berezirik zeudela; *Tablettes*-etan aipatzen ditu Belak, baina ez ziren haien zati bat. Beste alde batetik, Peillenen ustez (1988: 128), gramatikari eta hiztegiari zegozkien orrialdeak Joan Felipe birbilobak hartu zituen eta bere gramatika eta hiztegirako baliatu; nolana ere den, Joan Felipe Belaren hiztegian ez da oraingoz birraitonaren hiztegiaren arrastorik ziurtatu ahal izan. Jakes Belak erretra bilduma txiki bat ere utzi zigun (cf. Mitxelena 1964: 183-186).

6. Bidegarai

Dominique Bidegarai frantziskotarraren gramatika ere galdu da, baina haren lanen arrastoak jarraitu ahal dira Nafarroako Estatuaren Deliberamenduen Erregistroan, lehenik Dubaratek (1914-1917) eta gero Oyharçabalek (1989) egin bezala. Bidegarai, 1675-1679 urteen artean, zenbait diru-eskari aurkeztu zituen bere lanak argitaratzeko. 1675eko agiriekin dioskute Bidegarai hogen urtez euskara-frantses-latin hiztegi hirukoitz bat ondu zuela, gazteek Euskal Herritik atera gabe zientzien ataria den latina ikasteko. Bidegarai 4.000 liberako diru-laguntza eskatu zuen lau urtetan lana argitaratzeko; hala ere, Estatuak uko egin zioten.

¹⁵ Cf. orobat Prevost & d’Amat (1951; *apud* Ajasse 2005: 35): “On conserve de lui *Tablettes*, encyclopédie méthodique en 6 volumes (l’un d’eux est perdu) où il traite *de omni re scibili* et aussi de lui-même”. Bide batez, Ajasse-ren katalogokoa liburuki galdua izan liteke: “Le présent manuscrit est sans doute celui que Roman d’Amat considérait perdu” (2005: 35). Hala ere, katalogokoa laugarren liburukia da (*Juss-Off*) eta Clément-Simonek hirugarren liburukia (*Exemples-Justice*) falta dela dio (1894-1895: 218).

Hurrengo urtean bigarren eskari bat egin zuen eta bertan hiztegiari gaztelania erantsi zion. Halaber, deliberamenduan azaltzen da euskara ez dela arautu, ezta zientzietan erabili, eta azpimarratzen da euskara dela hebreeraren antza duen hizkuntza bakarra eta, hebreera izan ezik, zientzia eta elokuentziarako egokiena. Bidegarairen lanak nazioarteko harremanetarako eta merkataritza erlazioetarako ekar lezakeen abantaila ere nabarmentzen da. Hartara, Estatuak batzorde bat izendatu zuten eskaria azter zezaten.

1677ko batzarrean Bidegaraik eskaria berretsi zuen eta batzordeak hiztegia eta *Rudimens* direlakoak —hots, Etxeberri Sarakoak gramatikaren *hatsapenak* deituko zituenak— onuragarri eta erabilgarriak izango zirela baieztatu zuen. Gramatikan euskararen deklinabidea eta aditz-jokoa azaltzen zirela aipatzen da: “Qu’ils fairont enfin rapport sans doute des Rudimens basques qu’ils ont pareillement examinez, où il réduit cette langue en règles et que de la manière curieuse et surprenante de décliner et conjuguer qui y est observée”; era berean, hebreerarekiko erkatzeari eusten zaio, bi hizkuntzetan aditzek generoa baitute, latinean ez bezala (ik. Dubarat 1914-1917: 13). Euskara “langue mère” dela ere agertzen da. Ondorioz, Estatuak 600 liberako diru-laguntza ematea onartu zuten, baina Bidegaraik ez zuen sosik jaso, ezta 1679an hil ondoren haren oinordekoek ere. Dubaratek dioenez (1914-1917: 9), hiztegia eta gramatika argitaragabe geratu ziren eta baliteke Iraultzaren garaian Paueko Sokadunen Artxiboekin batera sakabanatu eta galdu izatea.

7. Etxeberri Sarakoa

Joanes Etxeberri Sarako medikuak latina ikasteko *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* (Etxeberri 1712) idatzi zituen, euskaraz eta latinez, bere hiztegi laueledunaren “cimenduac, çainac eta erroac” izan zitezten. Etxeberri Lapurdiko Biltzarrari aurkeztu zion bere lana eta 1727an 3.000 liberako aurrerakina eskatu zuen, inprima zedin. Ez zuen lortu eta eskuizkribua inprimatu gabe geratu zen, Julio Urquijok Zarauzko Frantziskotarren komentuan aurkitu zuen arte (Urquijo 1907). Etxeberriren lanak bi parte ditu: lehena *Escuararen hatsapenac*¹⁶ apologi lana da eta bigarrena, *Escuarazco hatsapenac latin ikhasteco* gramatika-lana. Eskuizkribuaren zati handi bat bi zutabetan antolatzen da: ezkerrekoan euskarazko testua eta eskuinekoan, latinezkoa. Baina Urquijok ez zuen argitaratu Zarauzko eskuizkribuaren latinezko testu gehiena. Geroztik, Xabier Kintanak bertsio askoz ere laburragoa eman zuen argitara,

¹⁶ Gidor Bilbaok ezarritako izenburua hautatu dugu; lehenengo zati hau Urquijok *Laburdiri escuararen hatsapenac* izendatu zuen eta Kintanak, *Eskuararen ethorkia*.

“latinezko deklinazioak eta aditzen parte luze eta aspergarria alde batera utzirik” (Kintana 1972: 15).

Gidor Bilbaok bere doktorego tesian eta zenbait artikulutan (Bilbao 2006a eta 2006b), Etxeberriren lanen helburuak, egitura, edukia, iturriak eta testu-arazoak bikain eta xeheki aztertu ditu, baita Zarauzko eskuizkribuaren edizioa prestatu ere.¹⁷ Hala, besteak beste, erakutsi du *Escuarazco hatsapenac* Sarakoaren proiektu hirukoitzaren zutabe bat izan zela eta, orobat, latina irakasteko erabili ziren *rudimenta* eskuliburuen tradizioan kokatu behar dela; are gehiago, Etxeberrik bere gramatika idazteko Hannibal Codret (1525-1599) jesuita eta gramatika-irakasle savoiarren lan bat izan zuen eredu: *De primis Latinae grammaticae rudimentis libellus* edo, frantsesezko izenburua duten edizioetan, *Les Rudimens ou les premiers principes de la langue latine* (cf. Bilbao 2006a).

Escuarazco hatsapenacen egituraz hitz bi baino ez dut esango. Etxeberriren gramatika, izenburuan ageri denez, euskaldunei latina ikasten laguntzeko da eta, hortaz, latinaren gramatika eta formak ditu abiapuntu.¹⁸ Gramatikak hiru atal ditu: lehenbizikoan latinezko deklinabide paradigmak ematen ditu (Etxeberri 1712: 307-322); bigarrenean, aditz-jokoen paradigmak (325-415. or.) eta, hirugarrenean, gramatikaren zatiei, perpaus-atalei eta komunztadurari buruzko galde-erantzunen bidez azaldutako xehetasunak (416-445. or.). Etxeberrik latinaren ohiko zortzi perpaus-atalak bereizi zituen; hauexek dira eman zizkien deiturak: *icena*, *icenaren ordaina*, *verboa*, *participioa*, *adverbioa*, *preposicinoa*, *juntaguina* edo *juntagaillua* eta *interjecinoa*. Lehen eta bigarren atalen artean zenbait ohar solte sartzen dira (323-324. or.): euskarazko bi nominatiboen (egungo absolutibo eta ergatiboaren) erabileraz, *-ena* eta *-enak* “genitiboen” arteko bereizketaz eta <c> eta <ç> letren banaketaz. Hirugarren atalaren ondoren Urquijoren ustez zirriborroak diren hiru orrialde daude (446-448. or.); azkenik, eskuizkribu osoaren aurkibide amaigabea dago (449-450. or.).

8. Urte

Etxeberrik bere gramatika-lana ondu zuen urte berean, beste lapurtar batek, Pierre Urtek, euskal gramatika luze bat (Urte 1712) idatzi zuen bere sorterritik kanpo, protestantea izanik Ingalaterran erbesteratua baitzen. Urterena dugu, hain zuzen, neurri handiko lehen euskal

¹⁷ Guztiarekin ere, Etxeberriren gramatikaren erreferentziatarako Urquijoren edizioaz baliatuko naiz oraingoz, Bilbaorena noiz argitaratuko zain.

¹⁸ Irudi luke, ordea, zenbaitetan euskaratik abiatzen dela, hala nola “Sum vocativoarequin eta generoarequin conj[u]gatua” atalean, non *izan*-en indikatiboaren orainaldiko eta iraganaldiko adizki alokutiboak agertzen diren, latinaren gramatika batean behar ez badira ere (Etxeberri 1712: 337).

gramatika ezaguna; gehienbat frantsesez idatzi zuen Urtek, inoiz latina eta oso bakanka ingelesa ere baliatu bazituen ere. Wentworth Webster euskalari ingelesak argitara eman zuen XIX. mende amaieran, originalaren kopia bat oinarri hartuz (Webster 1900). Hala ere, gramatika honek ez du euskalarien arreta gehiegi erakarri, alde batera uzten baditugu Allières-ek Urteren aditzaz utzi zituen bi artikuluak (1985, 1991), Urkizuk Urteren hiztegiaren edizioan idatzitako oharra (1989: 69-79) eta, jakina, Oyharçabalek Larramendiren aurreko gramatika-lanen aurkezpenean eskaini zizkion orrialdeak (1989: 68-72). Bestalde, Clark eta Vinsonek (1893-1894) Urteren gramatikako hiztegia eta beste zati batzuk argitaratu zituzten; Lakarrak ere Urteren gramatikako hiztegia argitaratu zuen (1994c) eta hari buruzko xehetasun zenbait eman zituen (1994b).

Urteren gramatikaren egiturak guztiz eredu greko-latindarreko gramatikei jarraitzen die. Zehazkiago, Gidor Bilbaok (2008) frogatu du Urtek erabili zuen eredu Claude Mauger frantsesaren gramatika didaktikoa¹⁹ izan zela. Urteren lanaren hasieran ortografiari buruzko orri batzuk daude, Aita Gurearen testuarekin eta zenbait azalpen etimologikorekin amaitzen direnak. Ondoren, testuaren zati nagusia betetzen duen perpausaren atalen aurkezpena dator. Lehenengo atalak kategoriaka antolatutako hiztegi moduan ekartzen ditu Urtek: hurrenez hurren, izenak (gaika antolatuak), adjektiboak eta “akzidente” izendatzen dituenak —hau da, galdetzaileak, erakusleak, zenbakiak eta zenbait atzizkiz osatutako hitzak—. Deklinabidearen aurkezpenak hartzen ditu hurrengo orriak, latin gramatikaren ereduari hertsiki lotuak. Aditzaren azalpenak 330 orrialdetik gora betetzen ditu Webster-en edizioan (1900: 77-410), gramatikaren atal luzeena, alde handiz; bereziki atal honek islatzen du Urteren gramatikaren ezaugarri nagusietako bat: hainbat eta hainbat datu eskaintzen ditu, askotan ordena oso argirik gabe, baina analisi eta azalpen oso gutxi kausi daitezke. Adizki jokatu gabeak ere bi zerrendatan antolatuta daude (cf. Webster 1900: 302-410): zerrenda batean, *nai*z laguntzailea hartzen duten aditzak sartzen dira eta, bestean, *du*t laguntzailea hartzen dutenak. Zerrenda hauen ondoren perpausaren gainerako atalak datoz: partizipioa, adberbioa, preposizioa, juntagailua eta interjekzioa. Gramatikari buruzko informazioa sintaxiak ixten du, arreta guztia komunztaduran eta joskeran jarriz. Hurrengo orrietan figurak aurkezten ditu, tradiziozko gramatikagintzan oso ohikoa zen atala, alegia; hemen eta sintaxian frantsesaren eta euskararen adibideetan hitz ordena desberdinak markatzen ditu, hitzen gaineko letrak eta bestelako ikurrak erabiliz.

¹⁹ Lehenago ere Oyharçabalek (1989) iradoki zuen Urteren gramatikaren helburua didaktikoa izan zitekeela, Urtek inon halakorik aitortu ez bazuen ere.

Adostasun nahiko handia dago (ik., esaterako, Vinson 1901, Mitxelena 1960 eta Oyharçabal 1989) Urte gramatikariaren merezimenduak ez direla handiegiak, datu biltzaile gisa ez bada;²⁰ alabaina, horretan ere —haren hiztegiak lana ezagututa (cf. Lakarra 1994b)— susmo sendoa izan dezakegu ez ote zituen aditz paradigma asko ereduari jarraituz sortu edo osatu, bere herriko hizkerako “altxorretik” idoki beharrean. Datuen bildumatik landa, Oyharçabalek (1989: 72) dioenez, Urte “[est] loin de la sagacité d’un Oihenart ou de la richesse et la fécondité des analyses méthodiques d’un Larramendi”.

9. Larramendi

Manuel Larramendiren *El imposible vencido* (1729), jakina denez, lehenbiziko euskal gramatika-liburu argitaratua da. 1853an berrargitaratu zen eta hurrengo urtean frantsesezko sasi-itzulpen bat izan zuen (Blanc 1854). Hordagoren faksimileen artean ere kaleratu zen 1979an. Damurik, gramatika garrantzitsu honek ez du oraindik edizio modernorik izan. *Artearen* lehen zatiak, luzeenak, egun flexio-morfologia deitzen duguna aurkezten du: funtsean, deklinabidea eta aditz-jokoa (1729: 1-256); bigarren zatia sintaxiari buruzkoa da, perpaus-atal bakoitzaren egitura aztertzen duena (257-335. or.), eta hirugarrenak azentuaz dihardu (336-372. or.); liburua amaitzen da euskal poemagintzari buruzko eranskin batekin (373-395. or.).

Larramendiren gramatikagintzaren ezaugarri orokorrei kontu egiten badiegu, bi joeraren arteko tentsioa nabari daiteke: alde batetik, orduko gramatikagintza tradizioarekiko —zehazki, eredu greko-latindarrarekiko— atxikimendu hertsia nagusi da; baina, bestetik, zenbaitetan Larramendi eredu horretatik aldendu egiten da, euskararen deskribapen egokiagoa lortzeko asmoz (ik. Gómez 1991). Adibidez, Larramendik, oro har, tradiziozko eredu onetsi zuen arren, eredu hari, garaiko gramatikarien terminologia hedatuenari, iritzi zabalenei, eta abarrei buruz aski kritiko ere —eszeptiko batzuetan— azaltzen da; ik., adibide gisa, Larramendi (1729: 43, 59, 72, 232, 249 eta 318). Eredu greko-latindarra egitura desberdina duen hizkuntza bati egokitzean, arazoak eta desegokitasunak sortu zitzaizkion, Europako hizkuntzekin apalkiago eta Asia eta Ameriketako hizkuntzekin nabarmenkiago gertatzen zen legez. Larramendik badaki, jakin, ereduak mugak dituela (1729: 85) eta badu, orobat, bere aitzindaritasunaren kontzientzia argia. Ildo honetan, hitzaurrean euskararen apartekotasunaren

²⁰ Webster (1893: 544) eta Urkizu (1989: 79) ez dira iritzi berekoak eta Urte gramatikari handitzat jotzen dute.

eta honek zekarzkion zailtasunen berri ematen du, euskararen izaera postpositiboa azpimarratuz.

Zernahi gisaz —eta garaiko jarrera arruntena izanik—, Larramendik itsu-itsuan jarraitzen dio greko-latindar gramatiken ereduari, gehienetan oharkabean bada ere. Hala, latin gramatikaren ohiko zortzi perpaus-atalak aipatzen ditu, preposizioaren ordezt postposizioa emanaz eta artikulua izenaren eta izenordainaren barruan sartuz (1729: 258-259). Halaber, numeroari dagokionez, ez da mugagabeaz ohartzen eta honek, inoiz edo behin, *ad hoc* egindako deskribapen batzuk idatarazten dizkio (1729: 18-19, 40-41 eta 286).

Izen morfologiaren arloan, Oihenarten irizpide formalaren ordezt, Larramendi irizpide funtzionalaz baliatzen da deklinabide-paradigmak eratzeko. Hau dela eta, latinaren sei kasuak gordetzen saiatzen da, baina kasu bakoitzean ahalik eta euskarazko marka gehienak sartzen ditu. Adibide zuzena dugu kasu datibo eta ablatiboekin gertatzen dena: Lehenengoan, ‘a’ eta ‘para’ itzulpenek behartuta, berezko datiboari (*arí*) destinatiboa ere (*aréntzat*) eransten dio, Mikoletaren lanean ikusi dugun bezala. Bigarreanean, ablatiboak latinez dituen funtzioak buruan izanik, kasu hau saski-naski bihurtzen da Larramendiren deklinabide-paradigmatan, era askotako atzizkiak metatzen baititu bertan: gure soziatiboa (*aréquin*), motibatiboa (*agátic*), inesiboa (*án, eán, agán*) eta, harrigarriki, *gabe* postposizioa.

Deklinabide-paradigmak aurkeztu ondoren, Larramendik euskal izen arruntek beste “artikulu” batzuk badituztela adierazten du (1729: 8-11).²¹ Partitiboaren markak (*íc, ríc*) nominatibo eta akusatibo singularrari atxikiko dizkie, egoera zehatz batzuetan soilik erabiltzen direla ohartuz. Genitiboaren barnean sartzen ditu instrumentalaren markak; *áz, záz* eta *z, ez* artikulua bereizten ditu eta bigarrenak ablatiboaren antz handiagoa dutela eransten du. Ablatiboan sartzen du, bestalde, *az* postposizioa, “que corresponde á la preposicion de ablativo *con*, v.g. *espatáz, maquilláz jo-deu, il-zuen*” (1729: 11). Azkenik, leku-denborazko kasu gehienak adverbioen sailean (1729: 323-331) sartzen ditu Larramendik. Izan ere, adverbioztat ditu inesiboko atzizkiak (berriz ere), ablatiboa, *-ko* atzizkia, *-(t)ar* atzizkia, adlatiboa eta hurbiltze-adlatiboa (*-ronz*). Jokabide honen arrazoia, aldeak alde, Oihenartenaren antzekoa izan liteke: alegia, atzizkiotan Larramendik artikulurik antzematen ez duenez, ez dagozkio deklinabideari. Gogoratu Larramendiren iritziz euskaraz artikulua deklinatzen direla. Dena dela, adverbio hauetako batzuetan singularren eta pluralaren arteko bereizketaz hitz egiten du, baina ez adverbioei dagokienez, baizik eta adverbioak atxikitzen

²¹ Larramendiren “artikulu” terminoaren esanahiaz, ik. Gómez (2001).

zaizkien izenei buruz. Azkenik, Larramendik aurreko hiru atalak —deklinabideko atzizkiak, beste artikulua eta adberbioak— euskararen post-posizioen barnean sartzen ditu (1729: 331-334). Hauetaz gain, “genitiboa eskatzen” duten beste postposizio batzuk sartzen ditu: *aurreán*, *atzeán*, *contra*, *ondoán*, *aldeán*, *gañeán*, *azpián*, *arabera* eta *barrenén*.

Perpaus-atal bakoitzaren azpisailkapenean nabarmenkiago antzeman dakioke Larramendiri ereduarekiko atxikimendu hertsia. Adibide gisa, eta Larramendiren gramatikan duen pisua ere kontuan harturik, aditzaren azpisailak aipatuko ditut. Aditzak hiru azpisailetan banatzen ditu: aktiboak, pasiboak eta neutroak (1729: 43-44); honetan Priszianok eta beste hainbatek bezalaxe jotzen du, aditz moten definizio nozionalak ematen baititu (1729: 163-164). Bestalde, laguntzaileez (*terminaciones*) den bezainbatean, Larramendik aditz aktiboenak eta neutroenak bereizten ditu, eta aktiboen barnean, absolutuak eta iragankor edo erlatiboak (1729: 56-57). Alegia, laguntzaile aktibo absolutuak *det* eta *ditut*-en paradigmek osatuko lituzkete eta aktibo iragankorrak, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK erakoek. Beste alde batetik, laguntzaile neutroetan joko absolutu bakarra (*naiz*) eta zazpi erlatibo edo iragankor, NOR-NORI erakoak, daudela diosku gero (1729: 164-165).

Hasieran iragarri duen bezala, Larramendik darabiltzan sailkapena eta terminologia tradizionalak dira (halako terminoen historiarako, ik. Gómez Asencio 1985). Hau dela eta, ez da ohartzen euskararen laguntzaileek dituzten erro desberdinez —edo ez die garrantzirik ematen— eta, beraz, erdal sailkapenean oinarrituta, laguntzaileen banaketa bitarra egiten du funtsean: *naiz* (neutro eta pasiboetan) eta *det* (aktiboetan). Nolanahi ere den, sailkapen eta terminologia hau izango da, neurri handi batean, XIX. mendea arte (eta XIX.ean bertan ere) euskalari gehienek erabiliko dutena.

Aditz bakunen eta konposatuen —nahiago bada, trinko eta perifrastikoen— antzintasun eta jatorrasunaren arazoan, gauza jakina da, geroztik eta XIX. mendea arte jarrera nagusia izango dena ezartzen du Larramendik (1729: 44-45); hots, adizki konposatuak dira erregularrak eta, beraz, jatorrak, eta bakunak irregularrak. Beraz, euskaraz aditz guztiak, *benetako* aditz guztiak, konposatuak lirateke.

Larramendik hiru denbora *filosofikoak* bereizten ditu: oraina, iragana eta geroa. Gainerako aditz-denborak oinarritzko hiru hauen aldaerak lirateke. Bereizkuntza hau —dagoeneko Donatoren *Arte*etan kausi daitekeena— Sanctius-ek eta gramatika filosofikoak zabaldu zuten, besteak beste, eta XVIII. mendetik aurrera arrakasta erdietsi zuen. Halarik ere, Larramendik gramatikarien ohiko banaketa anizkunari amore ematen dio (1729: 57-58). Horrela honako

denbora-zerrenda hauxe eskaintzen du hurrengo lerroetan: orainaldia, iraganaldi burutugabea, iraganaldi burutua, iraganaldi pluskuanperfektua, geroaldi burutugabea eta geroaldi burutua. Sailkapen hau gramatikagintzan oso arruntzat jo dezakegu. Donatok, Priszianok eta, esaterako, Nebrixaren gaztelaniazko gramatikak (1492) proposatzen zuten zerrenda berbera da, azkeneko bi denboren bereizketan izan ezik. Alabaina geroaldi burutugabea eta burutua Nebrixaren latinezko gramatikaren 1523ko edizioak behintzat bereizi zituen —bertan *amabo / amauero* bikotea sail desberdinetan sartzen baita— eta, gaztelaniari dagokionez, lehen aldiz Lovainako 1555eko *Gramatika* anonimoak (cf. Rojo 1978: 293-297). Bestalde, Larramendik iraganaldi burutua bi motatakoa izan daitekeela dio; bata hurbila (*yo he comido*) eta bestea urruna (*yo comí*).²² Europako tradizioan bereizkuntza honen abiapuntua Port-Royaleko lanetan (Arnauld & Lancelot 1660, Arnauld & Nicole 1662) kokatu behar dugu. Lan honetan, denboren sailkapenean berrikuntza nabari eta arrakastatsu bat ezarri zen, iraganaldi hurbila eta urruna bereiztea erraztuko zuena: aditz-denbora bakunak eta konposatuak.²³

Adizki jokaturgabeak (“modos del infinitivo”) sailkatzerakoan ere, Larramendik latina izan zuen bide-erakusle (1729: 50). Mendekotasun honetatik arazo batzuk sortzen dira: formalki “infinitibo” soilak ez diren forma batzuk sartu beharrean dago (“Fut. de infin. *jan beár aver de comer*”, *ibid.*); itzulpen bitxiak ematera bultzatzen du (“Partic. fut. *jangó, jánen* quien ha de comer”, *ibid.*); ablatibo absolutuaren marka bezala *-(r)íc* ematen du, nahiz eta deklinabidearen aurkezpenean nominatiboaren aldaeratzat hartua zuen;²⁴ orobat gerundioei dagokienez, batak (“Gerund. Genit. y Dat.”) ez baitu datiboaren markarik (*játeco*), ez eta besteak (“Gerund. Acusat.”) akusatiboarenik ere (*játera*). Bestalde, latinaren eta euskararen erabateko paralelotasuna bilatu nahian,²⁵ *jaten* eta *jango, janen* adizkien kide latindarrak ere (*manducans* eta *manducaturus*, hurrenez hurren) forma aldaezinak direla baieztatzen du; hots, latinezko orainaldiko eta geroaldiko partizipioen deklinagarritasuna ukatzen du zeharo.

²² Latinean falta den bereizkuntza honen jatorria euskaran jartzen du eta, jakina, euskaratik ikasiko zuketena gaztelaniak eta gainerako erromantzeek (Larramendi 1729: 60).

²³ Bereizketa hori *Port-Royalen hatsarrea* izendatu da (cf. Calero Vaquera 1986). XVII. mendean, Port-Royaleko autoreek aditz-denborak sailkatzeko denbora bakunen eta denbora konposatuen arteko bereizketa proposatu zuten; hala ere, geroago zabaldu ziren terminoak Girard abadeari dagozkio: denbora absolutuak eta erlatiboak. Denbora absolutuetan, hizketa-unea erabiltzen da denborak kokatzeko erreferentzia-puntu gisa. Denbora erlatiboetan, berriz, hizketa-unea eta erreferentzia-puntua desberdinak dira. Port-Royaleko autoreen sailkapen honek arrakasta handia izan zuen Frantziako XVIII. eta XIX. mendeetako gramatika arrazionalistetan.

²⁴ Oihenartek bi *-ic* atzizkiak, izenkietakoa eta adizkietakoa, bat egin zituen (ik. Oihenart 1656: 58).

²⁵ Oroit bedi gramatikagintza tradizionalen latina eredu formala ez ezik, hizkuntza aberats eta noblearen eredu ere badela, eta hizkuntza batek zenbat eta latinaren antzekotasun hertsia goa izan, aberastasun, noblezasun eta prestigio handiagoa erdiesten zuela.

Azken batean, Larramendi bere garaiko semea da. Gramatika greko-latindarraren eredian oinarritu behar izan zuen, halaxe jokatzen baitzen eskuarki XIX. mende hasiera arte, gramatika orokorraren joeran sartu ziren lanetan izan ezik. Oraino ez dakigu Larramendik zein gramatika izan zuen eskuartean bere *Arteari* ekiterakoan, ezta ereduako gramatika-lan bakarretik abiatu zen ere. Dena dela, *El imposible vencidok*, orduko jakite-maila aintzat harturik, euskararen aski deskribapen ona eskaintzen du eta, euskararen egituraz den bezainbatean, erdiespen zoragarri eta intuizio zorrotz batzuk ere baditu.

10. Oianguren

Melchor Oianguren frantziskotarrak euskarari buruzko zenbait lan utzi zizkigun, bere japonieraren (Oianguren 1738) eta tagaloaren (Oianguren 1742) gramatiketan dioenari kasu egiten badiogu behinik behin. Azken urteotan Oiangureni buruzko ohar bakarrak Oyharçabalek eskaini dizkigu (1989: 67-68); baina bada euskalari honek aipatzen ez duen artikulu zahar bat (Pérez 1909), Oiangurenen lan ezagunen aski deskripzio zehatza ematen duena, baita haren hiru lan galduak dakiguna laburtzen duena ere.

Oiangurenen bi gramatika ezagunak misiolarien hizkuntzalaritzaren joeraren barruan sartzen dira (cf. Hovdhaugen 1996, Zwartjes 2000, Zwartjes & Hovdhaugen 2004 eta Zwartjes & Altman 2005) eta, halako lan asko bezala, 1481etik aurrera argitaratu ziren Nebrixaren latin gramatiketan oinarritzen dira.²⁶ Nolanahi ere den, hizkuntzak ikasteko eta erkatzeko zaletasuna baitzuen,²⁷ japonieraren eta, bereziki, tagaloaren gramatika-liburuetan euskarari buruzko zenbait ohar tartekatu zituen, beste hizkuntza batzuei buruzkoekin batera. Haietako batzuk nahiko harrigarriak suerta daitezke, hala nola dioelarik “imita en no tener personas el verbo á los Dialectos Chino, y á nuestros Dialectos Cantábricos ó Vascongados” (Oianguren 1742: 81, *apud* Pérez 1909: 22). Ziurrenik, Oiangurenek “aditz” deitzen dituenak egungo adizki jokatugabeak edo *aditz nagusiak* dira.

Oiangurenen hiru lan galduak hauexek liriateke: lehena tagalo-gaztelania-euskara hiztegi hirueledun bat; bigarrena *Arte de la lengua Vascongada*, Oiangurenek berak dioenez, 1715ean idatzi zuena; eta hirugarrena *Cantabrismo Elucidado* izenekoa. Irudi luke lan

²⁶ Hala ere, Oiangurenek ez bide zion beti orpoz orpo jarraitu, japonieraren gramatikan bederen (ik. Bae 2005).

²⁷ Pérezek dioskunez (1909: 19), “[e]ra este religioso muy versado en las lenguas Hebrea y Griega, y en Filipinas se dedicó con especialidad al estudio de los idiomas Tagalog, Chino, Japonés, Anamítico [hots, vietnamera — R.G.] y Malayo, que llegó á poseer con asombrosa perfección”.

hauean ere Nebrixaren ereduaz baliatu zela, baina galdurik diren bitartean ezin izango dugu egiaztatu.

11. Harriet

Martin Harriet notarioak euskaldunei frantsesa ikasten laguntzeko liburu bat argitaratu zuen (Harriet 1741). Harrieten gramatika osoa ez da berriz argitaratu; bai, ordea, liburuaren barruan dauden hiztegiak (Lakarra 1994a). Era berean, Harrieten gramatikak ez bide du euskalaritzaren historialarien arreta erakarri, ohar solteren bat edo beste kenduta; ik., esaterako, Oyharçabal (1989: 63) edo Lakarra (1994a: 20).

Harrieten lanak hiru zati nagusi ditu: “Iracurçailleari” sarrera laburraren ondoren, obra osoaren izenburu bera duen “Gramatica escuaraz eta francesez” dator (1741: 5-267); bigarrenik, “Dictionarioa. Escuaraz eta francesez” (268-323. or.) eta “Dictionnaire François & Basque” (324-440. or.) ditugu; hirugarrenik, “Remarques sur la langue Basque” (441-506. or.); liburu amaitzen da zenbait atal laburrekin: “Escualdunei gomendioa eta Abisua” (506-507. or.), “Liburu huntaco eraunsien, edo materien aurquiteguia edo taula” (507-511. or.), “Fautes à coriger dans les Dictionnaires” (511-512. or.) eta orriak zenbatu gabe dituzten hiru “approbacione” —bi euskaraz eta bat frantsesez— eta “Abisua autorac”.

Harrieti buruzko oharretan, bereziki nominatiboaren sei mailen teoria (1741: 446-449) aipatu ohi da, baita haren hizkuntzalari-sen apala azpimarratu ere. Bere abilezia gorabehera, Harrietek euskarazko gramatika-terminologia bat sortzeko egin zuen ahalegintxo²⁸ nabarmendu nahi nuke: *ordocha* ‘maskulinoa’, *urricha* ‘femeninoa’; *bakharra* ‘singularra’, *haiñitça* ‘plurala’; *oraicoa* ‘(indicatif) present’, *osoqui eguin ez denecoa* ‘preterit imparfait’, *osoqui eguiñecoa* ‘preterit parfait’, *eguiñagocoa* ‘plus que parfait’, *ethorcecoa* ‘futur’, *manatcecoa* ‘imperatif’, *nahizcoa* ‘optatif’, *juntatcecoa* ‘conjunctif’; *construccionea edo erreniamendua*, etab.²⁹

Euskal gramatikari buruzko ohar eta analisi gehienak euskararen gaineko ezagupideetan ematen ditu Harrietek. Ez dut hona aldatu nahi bertan azaldutako guztia, baina Harrieten

²⁸ “Ahalegintxo” diot, zeren *avoir* aditzaren jokoan agertu ondoren, hurrengo aditzen paradigmetan denbora eta moduen frantsesezko deiturak soilik ematen baititu.

²⁹ 263. orrialdeko *artienlu* errakuntza dateke (*articulu*), B. Oyharçabalek jakinarazi didanez (kom. elek.); *OEHK* ez dakar ezer. Bestalde, ez da guztiz erraza asmatzea termino hauekarik zein diren Harrietek sortuak edo egokituak eta zein garaian gutxi-asko erabiliak. Esaterako, Oihenartek neurtitzetan (1657) *orotsa* eta *urrixa* erabili zituen eta, Mitxelena (1953) iradoki zuen bezala, zuberotarrak gramatika-termino gisa ere ezagut zitzakeen.

gramatika ideia eta analisi nagusien lehen hurbilketa bat eskaini nahi nuke. Euskal izen gehienek —erakusleak, adberbioak, pertsona-izen bereziak eta leku-izen gehienak dira aipatzen dituen salbuespenak— singularrean *-a* eta *-ac* eta pluralean *-ac* eta *-ec* amaierak dituztela markatzen du (1741: 442), baina gehienek amaiera galtzen dute adjektibo baten aurretik (444-445. or.). Orobat, lehen amaierak aditz substantibo eta pasiboekin eta bigarrenak aditz aktiboekin erabiltzen direla ohartarazten du (443-444. or.). Ondoren, nominatiboen sei mailak aurkezten ditu; horretarako *-ko* eta *-en* atzizkien errekursibitateaz baliatzen da, *Aita*, *aitac* lehen mailatik seigarren mailako *Aitarenarenarenanganicacoarenarenarena* forma ezinezkora iritsi arte (446-449. or.). Nolanahi ere den, Harriet bera konturatzen da bere aurkezpenaren mugez, adierazten baitu hirugarren maila (*Aitarenarena*) ez dela ia erabiltzen eta hurrengoak batere ez, “par curiosité” baizik ez dituela aipatu —eta, seguruenik, euskararen aberastasuna iradokitzearen ere bai—.

Harrietek hamaika kasu bereizi zituen,³⁰ baina ez zien izenik eman (1741: 457). Ildo horretan, ia mende bat geroago Darrigolek (1827) abiaraziko zuen euskal deklinabidearen analisi morfologikoaren aitzindaritzat har dezakegu (cf. Oyharçabal 1998: 442, Gómez 2007: 139. oh.). Harrietek azpimarratzen du euskal hitz guztiak deklinatzen direla, hala nola adberbioak (1741: 458-460), “proposizioak” —hots, postposizioak— (460-461. or.), juntagailuak (461. or.)³¹ eta are letrak ere (462. or.). Orobatsu, adierazten du euskal hitz guztiek gradu konparatiboa onartzen dutela (469-470. or.).

Harrieten ustez, euskal aditza berez perifrastikoa eta guztiz erregularra da. Bi aditz-joko bereizten ditu: aditz substantiboak eta pasiboak (“& ceux qui prennent leur place”) eratzeko, *Nai*z paradigmako laguntzaileak baliatzen ditu; aditz aktiboak eratzeko, *Dut* paradigmakoak (480. or.). Nolanahi ere den, geroxeago beste hiru joko daudela baieztatzen du eta komunztadura anizkunaren berri emateko balio diote: egun NOR-NORI-NORK, NOR-NORK eta NOR-NORI izendatu ohi diren paradigmegi dagozkienak, alegia (491-497. or.). Honetaz guztiaz gainera, liburuan zehar Harriet aski arduratzen da euskal hitzen eratortzeaz, dagoeneko Lakarrak nabarmendu zuenez (1994a: 40-42).

³⁰ Badirudi, halere, ikuspegi formala barik, ikuspegi funtzionala hartu zuela aintzat, fratsesezko kideek berek gidatu ez bazuten: esaterako, *onaren* eta *oneco* elkarrekin sailkatzen ditu, eta orobat *onarençat* eta *onçat*. Gainera, zerrenda aurkeztu eta berehala, elkarrekin sailkatu dituen kasuen erabileraren berri zein orrialdetan aurki daitekeen zehazten du.

³¹ *Etaren*, *etatic*, *etari*, *etan*; *edoren*, *edoric*, *edora*... bezalako formak ematen ditu; baina adibideetan, jakina, juntagailuen erabilera metalinguistikoa agertzen da: “Ez *deçaçula etçar*, da, *etarençat*, ne metez pas *est pour et, &c*” (Harriet 1741: 461).

Euskararen gaineko ezagupideak amaitzen dira Harrieten ohar batekin (1741: 504-505), non iragartzen duen bere lanak jarraipena izango duela beste hiru liburukitan: bigarrenean euskal aditzen bost jokoak osoki aurkeztuko ditu; hirugarrenak hiztegia osatuko du, eta laugarrenak sintaxia (“construction”) aztertuko du eta euskal esaldi hautatuak sartuko ditu. Harrietek diosku bigarren liburukia ondua zuela, eta hirugarren eta laugarrena ia amaituak. Segidako “Escualdunei gomendioa eta Abisua” eginak dituen beste bi liburu iragartzen ditu: lehena, “nausirik gabe” frantsesa irakurtzen ikasteko eta bigarrena, bi partetan, lehenengoa aditz trinkoak (“verbo gaitz eta erreguelan ez diren batçuen”) euskaratik kentzeko eta bigarrena maileguak garbitzeko (1741: 507). Gainera, liburua ixten duen “Abisua autorac” atalean, laster argitaratuko uste dituen bi lanen berri ematen du. Hauek guztiak, inoiz idatzi bazituen, galdu egin dira.

12. Fréret

Humboldtten paperen artean, Nicolas Fréret historialari eta hizkuntzalari frantsesaren euskal gramatika laburra dago, *Essay d'une Grammaire de la Langue Basque* (Fréret [1749 b.l.]). Humboldtten aipamenari esker ([1810-1815]) ezagutu zenetik galdurik izan zen; baina Fréreten lana 1992an agertu zen Krakovian (ik. Mueller-Vollmer 1993) eta egun gramatikaren eskuizkribua Krakoviako Biblioteka Jagiellonskan dago. Berriki Hurch-ek argitaratu du (2002a, 2002b) eta honi esker jakin dezakegu Fréreten testua, funtsean, Oihenarten XIV. kapituluaren laburpena besterik ez dela, diferentzia txikiak eta Fréreten hutsak gorabehera. Irudi luke askotan Fréretrek ez zituela Oihenarten analisiak ondo ulertu, euskaraz ez zekielako segurki; esate baterako, hiru nominatiboz mintzatzen da, Oihenartek kasu berezizat hartu zituen nominatiboa, aktiboa eta negatiboa bateratuz.

13. Kardaberaz

Eusqueraren berri onac (1761) liburuan, Agustin Kardaberaz jesuitak gramatikari buruzko ohar batzuk utzi zizkigun, gehienbat Larramendiren *Arteari* jarraituz eta maisuaren “marabillazko gramatika” gorai patuz.³² Helburu didaktiko eta apologetikoa nagusi izanik, kapitulu batzuetan (VI. eta VII.ean bereziki) euskal gramatikari buruzko zenbait adierazpen ematen ditu, behin baino gehiagotan euskara eta latina erkatuz. Hala, latinak bezala euskal gramatikak ere perpausaren zortzi atal ditu; eta, latinaren preposizioen ordean, euskarak postposizioak ditu. Batzuetan, Kardaberazek euskararen erregulartasuna eta erraztasuna

³² Kardaberaz euskal gramatika ideiei buruz, ik. Túrrez (2004) eta Zubiaur (2004).

nabarmetzen ditu: esaterako, latinaren edo grekoaren deklinabide zailen orde, euskarak kasu bakoitzean beti atzizki berdinak dituela diosku; ildo beretik, euskal aditzaren batasuna eta erregulartasuna azpimarratzen ditu, aditz-joko bakarra baitu; eta ez du beste hizkuntzen “Jenero eta preteritoen naspilla edo iskanbillarik”.

14. Bibliografia

Iturriak:

- Arnauld, Antoine & Claude Lancelot, 1660, *Grammaire générale et raisonnée*. Paris. Hirugarren edizioaren berrargit. faksim. Stuttgart/Bad Cannstatt: F. Frommann, 1966.
- & Pierre Nicole, 1662, *L'art de penser: la logique de Port-Royal*. Paris. Berrargit. faksim. Stuttgart/Bad Cannstatt: F. Frommann, 1965-1967.
- Blanc, Saint-Hilaire, 1854, *Grammaire de la langue basque, d'après celle du P. Manuel de Larramendi intitulée El imposible vencido*. Lyon & Paris: Blanc et C^{ie}.
- [Darrigol, Jean-Pierre], s.d., [1827], *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque, par un ecclésiastique du diocèse de Bayonne*. Baiona: Duhart-Fauvet. Berrargit. faksim. Toulouse: Eché, 1979.
- Etxeberri, Jean, 1712, *Escual-Herriari eta escualdun guztiei escuarazco hatsapenac latin ikhasteco. Lehenbiciric icenen declinacinoez eta verboen conjugacinoez, azquenean icenari, eta verboari dagotzen gauçac*. (Zarauzko Frantziskotarren Komentua) Zarautz. Ik. Bilbao (2006b), Kintana (1972: 219-254) eta Urquijo (1907: 203-377).
- Fréret, Nicolas, [1749 b.l.], *Essay d'une Grammaire de la Langue Basque*. (Biblioteka Jagiellonska: Coll.ling.fol. 73, 197-216) Krakovia. Ik. Hurch (arg.) 2002a, 96-110.
- Harriet, Martin, 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez, composatua francez hitzcunça ikhasi nahi dutenen faboretan*. Baiona: Fauvet Alarguna eta J. Fauvet.
- Kardaberaz, Agustin, 1761, *Eusqueraren berri onac*. Iruñea: A. Castilla. Berrargit. faksim. in *Obras completas euskéricas*, I, 155-170. Bilbo: LGEV, 1977. P. Altuna eta E. Zulaikaren edizio kritikoa (Euskararen Lekukoak, 23). Bilbo: Euskaltzaindia, 2004.
- Larramendi, Manuel, 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca: A. J. Villagorde. Berrargit. faksim. Donostia: Hordago, 1979.
- Mikoleta, Rafael, [1653], *Modo Breue de aprender la lengua Vizcayna*. (British Museum: Harl. 6314) Londres. Ik. Sampere y Miquel 1880, Dodgson 1897 eta Zelaieta 1988, 1995.
- Nebrija, Elio Antonio, 1481, *Introductiones Latinae*. Salamanca. Berrargit. faksim. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1981.
- , 1492, *Gramática de la lengua castellana*. Salamanca. A. Quilis-en arg. eta ikerketarekin, Madril: Centro de Estudios Ramón Areces, 1989; M. Á. Esparza eta R. Sarmientoren sarrera eta arg. eta A. Zamora Vicenteren aurk., Madril: SGEL & Fundación Antonio de Nebrija, 1992. Berrargit. faksim. Valentzia: Librerías “París-Valencia”, 1992.
- Oianguren, Melchor, 1738, *Arte de la lengua japona, dividido en quatro libros según el arte de Nebrija*. Mexiko: J. B. de Hogal.

- , 1742, *Tagalysmo elucidado, y reducido (en lo possible) á la Latinidad de Nebrija*. Mexiko: F. X. Sanchez.
- Oihenart, Arnaud, 1638/1656, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*. Paris: S. Cramoisy. 2. argit. gehitua, 1656. Gazt. itz., 2. argit.-ean oinarritua eta J. Gorosterratzuk moldatua, *RIEV* 17 (1926), 18 (1927) eta 19 (1928). Berrargit. faksim. Gorosterratzuren itzulpenarekin eta R. Ciérvideren sarrearekin, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1992.
- , 1657, *Les proverbes basques recueillis par le sr. d'Oihenart plus les poésies basques du mesme auteur*. Paris. Berrargit. faksim. *RIEV* 26 (1935), 201-264, 665-728; 27 (1936), 201-272. Berrargit. fr. eta gazt. itz., J.-B. Orpustan (arg.), Baigorri: Izpegi, 1992. Berrargit., A. Irigoyen (arg.), in *Oihenarten Laugarren Mendeurrena (Iker, 8)*, 227-271, Bilbo: Euskaltzaindia, 1994. Berrargit., P. Altuna eta J. A. Mujika (arg.), Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2003.
- Pouvreau, Sylvain, [1665 b.l.], [*Euskara-frantses(-latin-gaztelaniazko) hiztegia*]. (Bibliothèque Nationale, Fond Basque-Celte: MS 7-8) Paris. Ik. Vinson 1892.
- Urte, Pierre, [1712], *Grammaire Cantabrique Basque*. (Shirburn Gazteluko Liburutegia: North Library, 112, H 18). Ik. W. Webster (arg.), 1900.
- Voltaire, [ca.1620], *L'Interpret ou Traduction du françois espagnol & basque*. Lyon: A. Rouyer. Berrargit. faksim., Xarles Videgainen hitzaurrearekin, Pau: Manucius, 2000.

Ikerketak:

- Ajasse, A., 2005, *Manuscrits anciens, autographes, documents historiques, archives* [PDF agiria], Librairie Ajasse, Lyon, <<http://www.ajasse.com/images/enchere/120105.pdf>>.
- Allières, J., 1985, “Statut et limites du polymorphisme morphologique. Le verbe dans la *Grammaire Cantabrique Basque* de Pierre d’Urte (1712) (1ère partie)”, in J. L. Melena (arg.) 1985, *Symbolae L. Mitxelena Oblatae*, UPV/EHU, Gasteiz, 899-919.
- , 1991, “Statut et limites du polymorphisme morphologique: le verbe dans la *Grammaire cantabrique* de Pierre d’Urte (1712): Seconde partie (les auxiliaires)”, in Lakarra (arg.) 1991, 767-812.
- Artiagoitia, X., P. Goenaga & J. A. Lakarra (arg.), 2002, *Erramu boneta: Feitschrift for Rudolf P. G. De Rijk*, UPV/EHU, Bilbo.
- Auroux, S. (arg.), 1992, *Histoire des idées linguistiques. Tome 2: Le développement de la grammaire occidentale*, Mardaga, Liège.
- Bae, E. M., 2005, *El sistema pronominal en la gramática del japonés del franciscano Melchor Oyanguren de Santa Inés (siglo XVIII): ¿Tradición y/u originalidad?*, Tesina argitaragabea, Universitetet i Oslo, Oslo.
- Bilbao, G., 2006a, “Hannibal Codret eta Etxeberri Sarakoa: latina euskaraz irakasteko ikasliburua XVIII. mendearen hasieran”, in B. Fernández & I. Laka (arg.), *Andolin gogoan. Essays in honour of Professor Eguzkitza*, UPV/EHU, Bilbo, 179-204.
- , 2006b. *Joanes Etxeberri Sarakoaren saiakera-lanak eta latina ikasteko gramatika: edizioa eta azterketa*, Doktorego tesi argitaragabea, UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz.
- , 2008, “Claude Maugerren eskuliburua Urteren eredu”, liburu honetan.

- Calero Vaquera, M^a L., 1986, *Historia de la gramática española (1847-1920). De A. Bello a R. Lenz*, Gredos, Madril.
- Clark, A. & J. Vinson, 1893-1894, “Vocabulaires basques de Pierre d’Urte”, *RLPhC* 26, 312-332; 27, 328-348.
- Clément-Simon, G., 1894-1895, “Le protestantisme et l’erudition dans le Pays Basque au commencement du XVII^e siècle. Jacques de Bela. Biographie. Extraits de ses oeuvres inédites”, *Bulletin de la Société des sciences, lettres et arts de Pau* 24, 197-321.
- Dodgson, E. S. (arg.), 1897, *Modo Breve de aprender la lengua Vizcayna. Compuesto por el l.^{do} Rafael Micoleta, presbyt.^o de la muy leal y noble Villa de Bilbao. 1653*, F. de P. Díaz, Sevilla.
- Dubarat, V., 1914-1917, “Le dictionnaire basque et les rudiments du P. Dominique Bidegaray, franciscain du Convent de Pau (1675-1679)”, *RIEV* 8, 6-16.
- Gómez, R., 1989, “Bonaparte printzearen inguruko hizkuntz eztabaidak”, *ASJU* 23:2, 355-392. Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 429-466.
- , 1991, “Larramendiren gramatika eta gramatikagintzaren historia”, *ASJU* 25:3, 783-796. Berrargit. in Lakarra (arg.) 1992, 193-205 eta in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 261-274.
- , 2001, “Artículo y “artículo” en la tradición gramatical vasca”, in M. Maquieira, M^a D. Martínez Gavilán & M. Villayandre (arg.), *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística. León, 2-5 de marzo de 1999*, Arco/Libros, Madril, 465-478.
- , 2002, “Los inicios de la vascológia en Holanda: El *Essai de grammaire de la langue basque* de Willem J. van Eys (1865, 1867)”, in Artiagoitia, Goenaga & Lakarra (arg.) 2002, 277-298.
- , 2007, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*, UPV/EHU, Bilbo.
- & J. A. Lakarra (arg.), 1992, *Euskalaritzaren historiaz, I: XVI-XIX. mendeak* (ASJUren gehigarriak, 25), Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, Donostia.
- Gómez Asencio, J. J., 1985, *Subclases de palabras en la tradición española (1771-1847)*, Universidad de Salamanca, Salamanca.
- Hovdhaugen, E. (arg.), 1996, *...and the World Was God. Missionary Linguistics and Missionary Grammar*, Nodus, Münster.
- Humboldt, W. von, [1810-1815], “Quellen u. Hilfsmittel zum Studium der Vaskischen Sprache”, in *Analyse der vaskischen Sprache*, eskuizkribu galdua; bada kopia fotografiko bat Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegian. Garateren gazt. itz. erabili dut: “Fuentes y medios auxiliares para el estudio de la lengua vasca”, in J. Garate 1933, *Guillermo de Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Junta de Cultura Vasca, Bilbo, 135-152.
- Hurch, B. (arg.), 2002a, *Die baskischen Materialien aus dem Nachlaß Wilhelm von Humboldts. Astarloa, Charpentier, Fréret, Aizpitarte und anderes*, Schöningh, Paderborn.
- , 2002b, “Materiales vascos del legado de Wilhelm von Humboldt (I): El *Essay d’une Grammaire de la Langue Basque* de Fréret”, *ASJU* 36:1.
- Kintana, X. (arg.), 1972, *Joannes Etxeberri Sarakoaren lan hautatuak*, Lur, Donostia.
- Lakarra, J. A. (arg.), 1991, *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum* (ASJUren gehigarriak, 14), Gipuzkoako Foru Aldundia, 2 lib., Donostia.

- (arg.), 1992, *Manuel de Larramendi. Hirugarren mendeurrena (1690-1990)*, Andoaingo Udala [etab.], Andoain.
- , 1994a, “Harrieten Gramatikako hiztegiak (1741)”, *ASJU* 28:1, 1-178. Berrargit. (*ASJU*-ren gehigarriak, 18), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1995.
- , 1994b, “Euskal hiztegitzaren historiarako: II. Gogoetak Urteren hiztegitzaz”, *ASJU* 28:3, 871-884.
- , 1994c, “Euskal hiztegitzaren historiarako: III. Urteren Gramatikako hiztegia”, *ASJU* 28:3, 885-914.
- , 1997, “Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L’interprète ou Traduction du François, Espagnol & Basque (~1620)*”, *ASJU* 31:1, 1-66.
- , 1999, “*L’interprète ou Traduction du François, Espagnol & Basque (~1620)*: II: Elkarrizketak”, *ASJU* 33:2, 493-568.
- Law, V., 1997, *Grammar and Grammarians in the Early Middle Ages*, Longman, Londres & New York.
- Mitxelena, K., 1953, “Arnaut Oihenart”, *BAP* 9, 445-463. Berrargit. in Mitxelena 1988, 866-879.
- , 1960, *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madril. (Bigarren argit. erabili dut, Erein, Donostia, 1988.)
- , 1964, *Textos Arcaicos Vascos*, Minotauro, Madril. Berrargit., Sarasola (1983)-rekin batera (*ASJU*ren gehigarriak, 11), Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, Donostia, 1989.
- , 1973, “Guillaume de Humboldt et la langue basque”, *Lingua e stile* 8, 107-125. Berrargit. in Mitxelena 1985, 126-142. Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 379-393.
- , 1985, *Lengua e historia*, Minotauro, Madril.
- , 1988, *Sobre Historia de la Lengua Vasca* (*ASJU*ren gehigarriak, 10), J. A. Lakarra (arg.), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Mueller-Vollmer, K., 1993, *Wilhelm von Humboldts Sprachwissenschaft. Ein kommentiertes Verzeichnis des sprachwissenschaftlichen Nachlasses*, Schöningh, Paderborn.
- Oyharçabal, B., 1989, “Les travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)”, *ASJU* 23:1, 59-73. Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 91-105.
- , 1993, “Les premières analyses des particularités morphosyntaxiques du basque au 17ème siècle”, *ASJU* 27:1, 265-284.
- , 1998, “A. Abbadieren euskal gramatikari buruzko ideiak eta ordu arteko euskal gramatikagintza”, in *Antoine d’Abbadie 1897-1997. Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohizko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra. Hendaye-Sare 1997*, Eusko Ikaskuntza & Euskaltzaindia, Hendaia & Bilbo, 431-451.
- Peillen, Tx., 1988, *Zuberoako itzal-argiak (Eüskarazko jakilegoak)*, Elkar, Donostia.
- Pérez, L., 1909, “Los Franciscanos en el Extremo Oriente”, *RIEV* 3, 17-23.
- Pérez Gaztelu, E. & E. Zulaika Ijurko (arg.), 2004, *Agustin Kardaberaz. Hirugarren Mendeurrena (1703-2003)*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia.
- Prevost, M. & R. d’Amat (zuz.), 1951, *Dictionnaire de Biographie française*, 5. lib. *Baltazar-Bergeret de Grancourt*, Letouzey et Ané, Paris.

- Rojo, G., 1978, “Las primeras descripciones del verbo castellano”, in *Estudios ofrecidos a E. Alarcos Llorach*, III, Univ. de Oviedo, Oviedo, 281-304.
- Sáez Rivera, D. M., 2006, “*L’interprète ou traduction du François Espagnol et Basque (1620) de Voltaire en el marco vascorrománico y europeo*”, in C. Isasi Martínez & S. Gómez Seibane (arg.), *Lingüística Vasco-Románica. I Jornadas = Euskal-Erromantze Linguistika. I. Jardunaldiak (= Oihenart 21)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 441-452.
- , 2007, *La lengua de las gramáticas y métodos de español como lengua extranjera en Europa (1640-1726)*, Doktorego tesi argitaragabea, Universidad Complutense, Madril.
- [Sampere y Miquel, S.] (arg.), 1880, *Modo breve para aprender la lengua Vizcayna. Compuesto por el Doctor Rafael Micoleta, presbítero de la M. L. y N. villa de Bilbao - 1653*, V. Dorca, Girona. (= *Revista de ciencias históricas* 2 (1880), 122-156.)
- Sarasola, I., 1983, “Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos”, *ASJU* 17, 69-212. Berrargit., Mitxelena (1964)-rekin batera (*ASJU*ren gehigarriak, 11), Gipuzkoako Foru Aldundia & UPV/EHU, Donostia, 1989.
- Túrriz, I., 2004, “Linguistika eta prezeptiba *Eusqueraren berri onac*-en oinarri”, in Pérez Gaztelu & Zulaika Ijurko (arg.) 2004, 81-90.
- Urkizu, P., 1989, *Pierre d’Urteren hiztegia*, Deustuko Unibertsitatea-EUTG, Donostia.
- Urquijo, J., 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d’Etcheberri (1712)*, Geuthner, Paris. Berrargit. faksim. *RIEV* 28; LGEV, Bilbo, 1976 eta Atlantica, Biarritz, 1998 (*Lan osoa*).
- Villasante, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*, Ed. Franciscana, Oñati. Bigarren argit. berrikusi eta osatua. Lehen argit. Bilbo, 1961.
- Vinson, J., 1881, “Les premiers grammairiens basques. Notes de Sylvain Pouvreau”, *RLPhC* 14, 109-119.
- , 1891-1898, *Essai d’une bibliographie de la langue basque*, Maisonneuve, Paris. Berrargit. faksim. liburuki bakarrean, J. Urquijoren oharrekin eta K. Mitxelenaren sarrerarekin (*ASJU*ren gehigarriak, 9), Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1984.
- , 1892, *Les petites oeuvres de Silvain Pouvreau*, L. Marceau, Chalon-sur-Saône. Berrargit. faksim. Hordago, Donostia, 1978.
- , 1901, “Urte, P.: *Grammaire cantabrique basque*” [Webster 1900en iruzkina], *RLPhC* 34, 200-211, 294.
- Webster, W., 1893, “Manuscritos labortanos de Pedro de Urte”, *Boletín de la Real Academia de la Historia* 22, 541-544. Berrargit. elektr. *Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes*: <<http://www.cervantesvirtual.com/FichaObra.html?Ref=19342>>.
- (arg.), 1900, *Grammaire Cantabrique Basque faite par Pierre d’Urte*, D. Barot, Bagnères-de-Bigorre.
- Zelaieta, A. (arg.), 1988, “Rafael Micoleta Çamudio: *Modo Breue de aprender la lengua vizcayna*”, *Hizkuntza eta Literatura* 7, 133-214. Berrargit. osatua Zelaieta 1995.
- (arg.), 1995, *Rafael Mikoletaren era llaburra*, AEK, Bilbo.
- Zubiaur, J. R., 1989, “Garibai hizkuntzalari”, *ASJU* 23:1, 49-58. Berrargit. in Gómez & Lakarra (arg.) 1992, 173-182.

- , 2004, “A. Kardaberazen *Eusqueraren berri onac* idazkiaren hizkuntzazko ideiak”, in Pérez Gaztelu & Zulaika Ijurko (arg.) 2004, 69-79.
- Zwartjes, O. (arg.), 2000, *Las gramáticas misioneras de tradición hispánica (siglos XVI-XVII)*, Rodopi, Amsterdam & Atlanta.
- & C. Altman (arg.), 2005, *Missionary Linguistics II / Lingüística misionera II. Selected papers from the Second International Conference on Missionary Linguistics, São Paulo, 10-13 March 2004* (SiHoLS, 109), John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia.
- & E. Hovdhaugen (arg.), 2004, *Missionary Linguistics/Lingüística misionera. Selected papers from the First International Conference on Missionary Linguistics, Oslo, 13-16 March 2003*, John Benjamins, Amsterdam & Philadelphia.